

ekarten duanaaa...."

Gizaseme batek erosten dio Mintzoa eta kapetegiaren sulki batean  
 yezarten da irakurten. Agurea nekatuta dago. Egunsentitik dago garr-  
 asian eta orain bada arratsaldea. Isildu egin da. Ahoa legorra du.  
 mingaitza latza. Ahaspala lakarra. Edozer edateko beharr du. Gara-  
 garno apurr bat, ur pizka bat. Azkenean etorrirat doa. "Aralgiteko dir-  
 urik ezpaitaduko. Berrikaridunez dirurik aski irabazten du, baina se-  
 mea hersguan dago. Eraleetsi egiten due. Nola izan diteke onetariko  
 bat? Esterenagatarr lerroan erale bat. Sendian -- sendi mazala -- in-  
 ork eztu inor il. Hertsiake ere ez. Beste baten erruaren ordainean dago.  
 Badu zazpi urte albistari saltzailearen semea hersguratu zuenetik. Abe-  
 ratsen okerkeriak. Ahaldunen makurkeriak. Beste zazpi urte iragan arte  
 eztaite irtenen.

Baina hersgu nagusiak -- gizon ustelak -- erran dio behin:

"Zerori, agure. Zure semea hemantxe dago; baina nahi duzulako ba-  
 karrik. Ekarr itzazu amabortz hogei diru eta neronek kanporatuko dut."

Aundikienean orrelakoak yazoten omendira. Eta ordudanik gordeten du  
 irabazitako dirua. Oraintxe geratzen dioe hamarr diru bakarrik. Datorr-  
 en neguan...

Ura eden du; ezpainak legortzen du eskuz. Oldoztuten yarraigiten  
 da. Bitartean mutil mingaitzluze shoandi batek dinotso auxe;

"Esazu berriro, ea, Baioneko, Donostiko, Nuebayorko, ea, agure;  
 Lehen ezizud entzun; baina esazu indarrago, espada etzaitu entzunen  
 inork; ea, Baioneko..."

Honelaxe ari da mintzatzen. Baina agureak eztitu mutilaren hitzak  
 entzuten. Aldean dagon iturriko ur erorkuntzaren murrura bezelakoa.  
 Semea du buruan, garunean, bihotzean, begietan, belharrietan, soin  
 osan.

Kapea edaten ari dan gizasemeak dinotso mutilari:

"Ago isilik! Mutil erhoa!"

"Zu baino areago!"

"Ahoandia!"

Baina Arrasat mutila arhinka asi da. Kape edalearen esakeraren aurka zuhertasuna (zuhurkeria obeto) da berorren egite guztien serea. Ezu minik artu nai. Emanen lioke dirua? Gizasemea yezarten da berriro kapea edaten eta egunerokoa irakurten. Mutilaren erroa! Adiskide yatorrak egiten due barre. Baina ez agureaz, Arrsatez baizik.

Datorren neguan... Kiribilkatu egiten da asmoa agurearen garunean. Dat<sup>o</sup> torren neguan ikusiko duke semea.

"Iruineko Elkargoa. Hementxe dago albistari ospetsuuaa....."

Aresti S. Gabirel